

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresaren bazkide eta behar izango ditugun hornitzaileei erreparatuz, esan dezakegu, lehenik eta behin argi komertzializatzaile bat beharko genukeela. Argi komertzializatzaile egoki bat aukeratu beharko genuke, berarekin itun batera iritsi eta tarifa bat adostuko genuke. Gaur egun badira hainbat elektrizitate enpresa handi, guk lehentasuna energia berriztagarriei eman nahi diegunez ingurumena kontuan izango duen enpresa bat kontratatuko dugu, horrela ingurumenean ahalik eta inpaktu ekologiko txikiena eginez.

endesa	—
holatuz	—
bulb	—
enx	—
ENERDOROLA	—
energy	—
ENERGIA	—
Naturgy	—
pedo	—
energen	—
wombot	—
enx	—
energi	—
energi	—
lucera	—
energi	—

Behin argia bermatu ezker, banaketa enpresa batekin beste akordio batera iritsi beharko ginateke. Lehen esan bezala, gure bezeroak norberak bere lagun mota diseinatuko du, online plataforman sartuta, eta behin online eredu tailerrera iritsi eta fabrikatzen denean, bezeroari aukera emango zaio automobila tailerrera eraman eta profesionalen bidez haguna ipintzeko, baina bezeroak norberak jarri nahi baditu lagun pertsonalizatuak, guk banaketa enpresa baten bidez bidaliko dizkiogu berak hagindutako lekura. Beraz funtsezkoa izango da banaketa enpresa batekin akordio ixtea.

Horrez gain makinak ere behar ditugu, baita tresneria espezifikatua ere lagun pertsonalizatuak fabrikatzeko. Behar beharrezkoa izango dugu makineria gure lana burutzeko. Ondoren, langileak ere kontratatu beharko ditugu, tailerrera hainbat eta online plataforma zuzentzeko beste pertsona bat kontratatuko dugu. Gure langileak baldintza duinetan kontratatuko ditugu. Materialen hornikuntza hainbat enpresa espezifikatuekin itxitako akordien bidez bermatuko dugu, itun horietan, enpresei gure proiektu berriaren publizitatea egiteko eskaera luzatuko diegu.

Behin gure enpresaren funtsezko oinarriak finkatu ondoren, gure bazkideak bilatuko ditugu, gure asmoa automobil enpresekin publizitate akordio bat ixtea da, gure produktua promozionatu dezaten, horren ordainetan guk dirua emango diegu, modu horretara alianza estrategikoa martxan jarriko dugu.

Itun hauek hainbat helbururekin jarriko ditugu martxan, besteak beste, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko. Arriskuak murriztea ezinbestekoa izango da gure enpresarentzat, horretarako publizitate ituna martxan jarriko dugu gure lagun pertsonalizatuek ikusgarritasun handiagoa izan dezaten. Beste alde batetik, baliabideak eskuratzea nahitaezkoa izango denez, lehen esandako moduan, gure material eta makineria hornitzaileekin hainbat itun jarriko ditugu martxan, egunen batean problemaren bat suertatuz gero, ez dedin inongo geldialdirik gertatu.

